



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak

EGIAZTATZEN DU:

Akademi Erakunde honek, Iruñeko ordezkaritzan, 2000.eko otsailaren 18an, egindako azken bilkuran, beste gai batzuen artean, honako hau aztertu zuela:

1.5.1. Leandro Kapetillo jauna, Enkarterriko Udal Mankomunitatearen lehendakaria denak egindako eskaera aztertzen da, hots zeintzuk diren eskualdearen eta bertako udalen euskal izenak. Batzordeak *Enkarterri* izenaz erabakitakoa jakinaraztea erabakitzen du: hau da, **Enkarterri** dela Bizkaiko toponimiako usadioari segituz erabili beharreko izena. Udal izenei dagokienez **Balmaseda**, **Galdames**, **Gordexola**, **Turtzioz** (gaztelaniaz *Trucios*) eta **Zalla** ongi daudeal ikusten da, aldaketa egin edo hizkuntza bietan berdinak direlako. *Güeñes* izena, bertako udal itzultzaileak eskatuta, aztertu zuen batzordeak, Bergaran hartutako erabakien ondorioz **Gueñes** dela izen egokia ebatziz. *Lanestosari* dagokionez, nahiz eta 1979.eko *Euskal Herriko Udalen Izendegia* liburuan *Isasti* * neotonimoa agertu, argi dago gaur egun onartuta dauden irizpideen arabera ez dela egokia eta **Lanestosa** izan behar dela izen bakarra hizkuntza bietarako. **Sopuerta** izena, *Garape* izenaren lekuko gehigo ez dagoen bitartean hobe da aldatu gabe uztea. Honek ez du inondik inora *Garape* izen desegokia denik esan nahi, gehiago ikertu behar dela baizik. *Carranza* euskaraz **Karrantza** da, izena Bizkaian gaur egun bizirik dagoelarik. *Arcentales* izenaren kasuan **Artzentaless** da euskaldunek erabilitako izena, gaztelaniazko izenaren moldaketa fonetikoa dena bestalde. Amaitzeko adierazi behar da Enkarterrin barrendegia den *Villaverde de Trucios* udalaren euskla izena **Villaverde Turtzioz** dela.

Eta hala adierazteko eta eskatzaileari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon bi milagarreneko otsailaren 24an.